



Begarako
Udala

ANGIOZARKO ESKOLA ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Bergaran, 2024ko ekainaren 4an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan da.

Bestetik, Naiara Larrea Hernandez andrea, Angiozarko eskolako zuzendaria, Angiozarko eskolaren ordezkari izan da.

Bi aldeak elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

A) Angiozarko 6. zenbakian kokatutako eraikinean 3 espazio nagusi daude. Haur Hezkuntzako aldea, Lehen Hezkuntzako eta *Arbiaska* aretoa. Udalak, ludoteka zerbitzua eskaintzeko *Arbiaska* aretoa erabiltzen du eta eskolak ere gela moduan erabiltzen du aretoa.

Ludoteka zerbitzuak eta eskolak 943761619 telefonoaren erabilera konpartitzen dute, baita internet zerbitzuarena ere.

B) Angiozarko eskolak hainbat bidaia egiten ditu Bergarako erdigunera, baina garraio horrek eskolarentzat gastua suposatzen du: herriko liburategira, museora, igerilekura, alde zaharra bisitatzera, etab... Honek gainontzeko herriko ikastetxeekiko desberdintasuna suposatzen du. Udalak ikastetxe guztietako umeei herriko ekipamendu desberdinetara joateko aukera berdintasuna bermatzeko diruz lagundu nahi ditu eskola orduetan Bergarara egingo diren garraio gastu hauek.

D) Bi aldeek gai hauek hitzarmen batean jaso nahi dituzte.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen kontratua hitzartu dute

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Eskolak *Arbiaska* aretoa erabili ahal izango du, eskola orduetan, beraien antolaketak horrela eskatzen duenean. Eskola egun eta orduetatik kanpo auzo alkatea izango da *Arbiaska* aretoaren kudeaketaren arduraduna.

Ludoteka zerbitzuak, eskola orduetatik kanpo, eskolako telefona eta internet zerbitzua erabili ahal izango ditu.



ANGIOZARKO ESKOLA
Angiozar z/g 201578 943761619
012273aa@hezkuntza.net
angiozar.eskolatxikiak.org



Bergarako
Udala

BIGARRENA: Konpartitzen diren telefono eta internet gastuak ondoren jasotzen den bezala banatuko dira.

	Angiozarko eskola	Bergarako Udala
Internet eta telefonoa	%70	%30

Fakturak eskolak ordainduko ditu eta udalak berari dagokion zatia ordainduko dio, aurrez, fakturen kopiak aurkeztuta.

HIRUGARRENA: Eskolatik Bergarara joan-etorria udalak diruz lagunduko du. Joan etorri hauek beti eskolako jardunera bideratutakoak izango dira eta Herribusean egingo dira, horretarako eskolako zuzendaria aurrez Herribuseko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da. Eskola arduratuko da Herribuseko bidaiak ordaintzeaz, eta Herribusearekin adostuko du bidaiaren ordua eta eguna.

Fakturak eskolak ordainduko ditu eta udalak urtean behin, gehienez, fakturen zenbatekoaren %75 ordainduko dio eskolari, gehienez ere 550€ ikasturteko.

LAUGARRENA: Kontratu honen iraupena urtebetekoa izango da, hau da, 2024ko gastuetarako.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

BOSTGARRENA: Honako baldintzak ere bete betetzeko konpromisoa hartzen du Angiozarko eskolak:

a) Diru-laguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.

b) Diru-laguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta diru-laguntza jaso edo erabiliztearen helburua bete izana.

c) Diru-laguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organismoek egin ditzaketen egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.

d) Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.

e) Ogasunetik betebeharratan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizios egiaztatuko du elkartearen Bergarako Udalarekin egunean dagoela.





Begarako
Udala

- f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezten.
- g) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- h) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.
- i) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.
- j) Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea.
- k) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Bergarako Udalak diruz lagundu duela.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hau kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei: zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari (GSDO): GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

SEIGARRENA: Ordainketa.

Dirulaguntza kobratzeko hitzarmen hau sinatu beharko da eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu 2024ko martxoaren 31 baino lehen:

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea.
- b. Balantzea.
- e. Telefono, internet eta Herribusaren fakturen kopia.

ZAZPIGARRENA: Dirulaguntzak bateratzea.

Udalak emango duen dirulaguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke. Hala ere, dirulaguntzak ezin izango du jardueraren kostua baino altuagoa izan.



Begarako
Udala

ZORTZIGARRENA: Dirulaguntza kopuruaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu den baldintzetako bat aldatuko balitz, edo Udalaren dirulaguntzaz gain beste bat jasoko balitz, emandako kopurua alda daiteke.

BEDERATZIGARRENA: Dirulaguntzen kentzea.

Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, hauetakoren bat gertatuz gero:

- Eskolak betebeharrak ez betetzea.
- Dirulaguntza beste helburu baterako erabiltzea.

HAMARGARRENA: Aurreikusita ez dagoena.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzek konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Gorka Artola Alberdi
Begarako Alkatea



Naiara Larrea Hernandez
Angiozarko eskolako zuzendaria

ESKOLA ETA LUDOTEKAREN ERABILPENA

-Astelehenetik ostiralera:

-Eskola: 9:00 – 16:00 : 7 ordu
-Ludoteka: 16:00 – 19:00 : 3 ordu
10 ordu

-Hiruko erregelak aplikatuta erabilpen denborarekin:

-Udala: erabilpen orduen %30
-Eskola: erabilpen orduen %70